



# HEZKUNTZA FAKULTATEKO

ikasleei zuzendutako  
ikerketa proposamenak

Argitalpen honen jatorrizko katalanezko bertsioa Anna Muñoz Gil eta Doris Monrós Sánchez Valentziako Erkidegoko Justizia Alimentaria elkarteak egin dute, *Pol·linitzar el canvi* izeneko proiektuaren barruan, Valentziako Generalitatearen eta Valentziako Udalaren laguntzari esker.



Euskarazko itzulpenak eta haren argitalpenak Garapenerako Nazioarteko Lankidetzako Espainiako Agentziaren (AECID) diru-laguntza izan dute, Alimentación sarearen programaren barruan. Argitalpenaren edukiaren erantzukizuna Justizia Alimentaria elkartearena et Hegoa Institutuarena da soilik eta ez du zertan AECIDen iritzia adierazten.

Argitaratzaileak:



Finantzatzailea:



Itzultzailea: Iñigo Gallastegi Zorrilla

Diseinua eta maketazioa: Fàbrica Gràfica Coop V (fabrikagrafika.com)

1. Testuliburuetakoko elikadura-  
piramidearen azterketa. **4**

2. Elikadura hezkuntza Lehen  
Hezkuntzako ikasgeletan. **6**

3. Eskola jantokia: ikaskuntza  
egoerak eta hezkuntza  
proiektua. **8**

4. Nola landu elikagaien  
publizitatea ikasgelan. **10**

5. Eskola baratzea: haren  
erabilera pedagogikoaren  
azterketa kritikoa. **12**

6. Elikadura iraunkorraren  
kontzeptua LHko hirugarren  
zikloan. **14**

7. Eskolako elikadura-  
eremuetan elikagaiak alferrik  
galtzea. **16**

8. Ekologiaren aurkako  
curriculum ezkutua. **18**

9. Haur Hezkuntzako elikadura  
hezkuntza birpentsatzea. **20**

10. Sukaldari ikusezinak:  
emakumeak eta elikadura  
Historian zehar. **22**

1.

**Testuliburueta  
elkadura-piramidearen  
azterketa.**



## 1.1 Arazoaren aurkezpena.

Gaur egun, hainbat espezialistak elikadura-piramideari buruzko berrikusketa kritiko bat egin dute. Izan ere, haien ustez, gaur egungo ereduak zailago egiten du publiko orokorrak hura ondo ulertzea. Gainera, piramidearen zenbait gomendio zalantzarriak dira, batez ere dieta osasungarri eta iraunkor bati dagozkion joera eguneratuagoak kontuan hartzen baditugu. Eztabaida horren esparruan beste eredu batzuk sortu dira, hala nola Harvardeko Platera. Eredu horiek janari bakoitza aztertzean oinarritutako kontsumo-eredu baten alde agertzen dira, non fruituen eta barazkien kontsumoa lehenesten den eta landare-proteinak eta zereal integralak nabarmentzen diren.

Beste alde batetik, Bidezko Elikaduran uste dugu nutrizio-gomendioak lurraldera eta gizarte-talde bakoitzaren kulturara moldatu behar direla. Maiz, zaila izaten da ikuspegi hori eskola-liburuetan aurkitzea, edukiak sinplifikatzeko eta uniformizatzeko joera baitago. Ildo horretan, interesgarria da geure buruari galdetzea elikadura-piramideek zenbateraino txertatzen duten dietaren iraunkortasuna edo zenbateraino diren baliagarriak tresna pedagogiko gisa.

## 1.2 Ikerketa galderak.

- Elikadura-piramidearen informazioa OMEren gomendioekin eguneratuta dago?
- Elikadura-piramideen proposamenak dieta osasungarria sustatzen duten elementuak txertatzen ditu?
- Elikadura-piramidea tresna pedagogiko egokia al da elikadura osasungarria eta iraunkorra sustatzeko?
- Ikasleek ulertzen al dute elikadura-piramideak zer esan nahi duen?

## 1.3 Sakontzeko erreferentziak.

- ¿Por qué muchos nutricionistas reniegan de la nueva pirámide nutricional?  
[https://www.eldiario.es/consumoclaro/cuidarse/que-es-piramide-nutricional\\_1\\_3420417.html](https://www.eldiario.es/consumoclaro/cuidarse/que-es-piramide-nutricional_1_3420417.html)
- Hangout no.1: La pirámide alimentaria.  
<https://www.youtube.com/watch?v=tx5TuorMOXk>
- Alimentos, Planeta, Salud. Dietas saludables a partir de sistemas alimentarios sostenibles.  
<https://www.miteco.gob.es/es/ceneam/recursos/pag-web/alimentos-planeta-salud.aspx>

2.

**Elikadura hezkuntza  
Lehen Hezkuntzako  
ikasgeletan.**



## 2.1 Arazoaren aurkezpena.

Elikadura hezkuntza funtsezko elementu bat da pertsona guztien prestakuntzan; izan ere elikadura gure osasunaren oinarri da, eta gure eguneroko ohituren funtsezko zati bat betetzen du. Gainera, elikaduraren bitartez, kultura, ondarea eta komunitate bati lotutako identitatea transmititzen da. Baina, zer neurritan lantzen da elikadura hezkuntza Lehen Hezkuntzako ikasgeletan? Ikasleek eza gutzen al dituzte sasoikotasuna, dieta osasungarria edo gertuko elikagaiak bezalako kontzeptuak? Bereizten al dituzte elikagai osasungarriak eta ez-osasungarriak? Elikadura onaren eta osasun onaren arteko lotura ulertzen al dute? Ba al dakite nondik datozen hartzen dituzten elikagaiak? Eta nola elikagai horiek eta gizakiok inguruko ekosistemen beharra dugun?

Bidezko Elikaduraren esperientzian oinarrituta, esan dezakegu elikadura hezkuntza ia ez dagoela garatuta Haur eta Lehen Hezkuntzako etapetan. Hala, gure ustez, interesgarria izan daiteke etapa horietan haren inplementazioa hobetzen lagun dezaketen alderdiei buruzko ikerketa bat egitea.

## 2.2 Ikerketa galderak.

■ Elikadura hezkuntzaren kontzeptua Haur edo Lehen Hezkuntzako eskola curriculumetan agertzen al da?

■ Zer nolako garrantzia ematen diote irakasleek elikadura hezkuntzari? Eta familiek? Eta hezkuntza legeek?

■ Zenbateraino hartzen da elikadura ikasleen prestakuntzaren funtsezko elementutzat?

## 2.3 Sakontzeko erreferentziak.

■ Educación nutricional. Food and Agriculture Organization of the United Nations.

<https://www.fao.org/nutrition/educacion-nutricional/es/>

■ Ekolapiko gida.

[https://www.biolur.eus/documentos/descargas/20160404\\_EKOLAPIKO\\_GIDAbehinbetikoa.pdf](https://www.biolur.eus/documentos/descargas/20160404_EKOLAPIKO_GIDAbehinbetikoa.pdf)

■ Nekazaritza ekologikoa eskolan lantzeko jolas digitalak.

<https://www.argia.eus/argia-astekaria/2581/ecosegell/inprimatu>

3.

**Eskola jantokia:  
ikaskuntza egoerak  
eta hezkuntza  
proiektua.**



### 3.1 Arazoaren aurkezpena.

Eskola jantokiak balio etikoen ikuspegi batetik pentsatzen baditugu, argi ikusten da eremu jasangarria izateko ahalmen handia dutela. Gero eta pobrezia handiagoko testuinguruetan, eskola jantokiak erabiltzaileetako batzuen eguneko janari bakarria emango dute agian. Gainera, hezkuntza eta kultura ikuspegi batetik, eskola jantokien erabiltzaileek garatzeko prozesuan dituzte haien gustua, haien elikadura-ohiturak eta mundua ulertzeko moduak. Hortaz, eskola jantokiak funtsezko eginkizuna dute. Eskolan nola eta zer jaten duten lagungarria izan daiteke ikasleek modu kritikoan pentsatzen ikas dezaten, batez ere ingurumenarekiko interakzioei dagokionez; eta gizartearen arazo kolektiboetan inplikatzera eta beren jokabideez arduratzera eramán ditzake. Eskolak kontsumitzaile belar-naldi berriak gaitzeko funtsezko guneak dira, eta ikasleak herritar kritikoak, hobeto informatuak eta kontsumo arduratsuekin konprometituak izan daitezten susta dezakete, ikuspegi ekologiko eta sozial batetik.

Eskolaren helburu nagusietako bat da ikasleei bizi eta garatzen diren mundua ulertzen laguntzea. Beraz, mundua ulertzeko eta munduan egoteko tresnez gain, aldaketaren eragile aktibo bilakatzeko tresnak ere eman behar dizkiegu.

Ez eskola jantokia ez etxekoa ez daude hezkuntzaren muinean. Hori kontuan hartuta elikaduraren arloa ikasgelara eramaten saiatu behar dugu; izan ere, bertan ematen dira ikasleek garrantzitsutzat hartzen dituzten ikaspenak. Baina nola eramán jantokia ikasgelara? Irakasleek benetan ulertzen al dute jantokiak duen hezkuntza ahalmena? Jantokia hezkuntza eragile kontziente eta zentzudun bilaka dezakegu?

### 3.2 Ikerketa galderak.

■ Zer nolako ezagutza eta inplikazio maila dute irakasleek eskola jantokiari dagokionez? Irakasleak eskola jantokiaren hezkuntza ahalmenaz jabetzen al dira?

■ Zer nolako edukiak landu beharko lirateke jantokia ikasgelara eramateko eta hezkuntza kontziente eta zentzudun baterako tresna gisa aldarrikatzeko?

■ Nola har dezakete parte ikasleek eskola jantokiaren potentziala aintzat hartzea sustatzeko eta aldaketaren eragile bilakatzeko? Ikastetxeko elikadura-batzordeak tresna egokia izan daitezke aldaketa hori lortzeko? Nola ireki dezakegu eskola jantokia hezkuntza komunitate osora?

### 3.3 Sakontzeko erreferentziak.

■ Aliméntar es educar.

<https://alimentareseducar.org>

■ Gure platera, gure aukera.

<https://www.gureplateragureaukera.eus/eu>

■ Aliméntar el cambio.

<https://alimentarelcambio.es>

4.

**Nola landu elikagaien  
publizitatea ikasgelan.**



## 4.1 Arazoaren aurkezpena.

Infoadex txostenaren arabera, Espainiako estatuko telebistan ematen dituzten iragarkien erdia baino gehiago (% 61) elikagai osasungaitzei dagozkie. Elikagaien sektoreak, urtean, 300 milioi euro inguru inbertitzen ditu publizitatean, eta horretan gehien inbertitzen duten sektoreetako bosgarrena da. Kolektibo hartzaileen artean, haurrak talde interesgarria dira enpresa iragarleentzat. Estimazioen arabera, haurrek, batez beste, 95 iragarki ikusten dituzte egunean. Haurrek eta gazteek iragarki horietatik jasotzen duten mezu nagusia elikadura-hezkuntzaren aurkakoa da, dieta osasungarriaren aurkakoa. Mezu horrek, gainera, haurren obesitatearen kontrako eta bizi-modu osasungarri baten aldeko kanpaina instituzionalen eraginkortasuna murrizten du.

Halaber, komunikazio eta kontrol tresna nagusietako bat, hain zuzen, elikagaien etiketatzea, informazio publizitarioa sartzeko funtsezko gune bihurtu da elikagaien industriarentzat. Egoera horren aurrean, ezinbestekotzat hartzen dugu ikasleek publizitateari buruzko ikuspegi kritikoa garatzea, eta marketin estrategiek nola eragiten duten ulertzea; hau da, telebistan agertzen den guztia ez dela egia.

## 4.2 Ikerketa galderak.

■ Nola ikusten dute ikasleek elikagaien publizitatea?

■ Publizitatea ikuspegi kritiko batetik lantzen da? Zer tresna ditugu curriculum-mailan elikagaien publizitatea lantzeko?

■ Posible al da ikasleen elikadura-ohituretan eragitea publizitatearen azterketa kritikoa birtartez?

## 4.3 Sakontzeko erreferentziak.

■ Aprendiendo a enfermar, alimentación insana en la población infantil y juvenil.

[https://justiciaalimentaria.org/wp-content/uploads/2022/02/Informe\\_Aprendiendo-a-enfermar.pdf](https://justiciaalimentaria.org/wp-content/uploads/2022/02/Informe_Aprendiendo-a-enfermar.pdf)

■ Mentira podrida: breve repaso por la alimentación charlatana.

[https://justiciaalimentaria.org/wp-content/uploads/2021/12/informe\\_mentira\\_podrida\\_breve\\_repaso\\_a\\_la\\_ailmentacion\\_charlatana.pdf](https://justiciaalimentaria.org/wp-content/uploads/2021/12/informe_mentira_podrida_breve_repaso_a_la_ailmentacion_charlatana.pdf)

■ Haurrei zuzendutako elikagai ez osasungarrien iragarkiek ez dituzte umeak babesten, kontsumoa areagotzen dute.

<https://www.eitb.eus/eu/albisteak/gizartea/oso/9625848/haurrei-zuzendutako-elikagai-ezosasungarrien-iragarkiek-ez-dituzte-umeak-babesten-kontsumoaareagotzen-dute/>

■ Estudio ALADINO, estudio sobre la Alimentación, Actividad física, Desarrollo Infantil y Obesidad en España.

[https://www.aesan.gob.es/AECOSAN/docs/documentos/nutricion/observatorio/Informe\\_Aladino\\_2019.pdf](https://www.aesan.gob.es/AECOSAN/docs/documentos/nutricion/observatorio/Informe_Aladino_2019.pdf)

**5.**

**Eskola baratzea:  
haren erabilera  
pedagogikoaren  
azterketa kritikoa.**



## 5.1 Arazoaren aurkezpena.

Azken urteotan, ikastetxe askok eskola-baratzea ezarri dute haien instalazioetan. Hala ere, baratzeak oso ibilbide aldakorra izan du hainbat arrazoiengatik, esate baterako, instituzioek laguntzen ez dutelako, ikastetxeetan baratzeari lotutako lanak egiteko denbora duen erreferentziazko figurarik ez dagoelako, edo eskola-denborak eta oporrak ekoizpen zikloekin bateragarri egitea zaila izaten delako. Beste alde batetik, maiz, ortuko lana ez da ikasgelara heltzen, ez baitago ortuan garatzen diren esperientzia praktikoak laguntzeko ikuspegi pedagogikorik.

Erronka horien aurrean, aztertu behar dugu zer estrategia gara daitezkeen eskola baratzeak gizarte eraldaketarako hezkuntza sustatzen duten hezkuntza-proiektu gisa sendotzeko.

## 5.2 Ikerketa galderak.

■ Zein izan da eskola baratzeen eragina ikastetxeetan?

■ Zer konpetentzia landu daitezke eskola baratzearen bitartez?

■ Zein da klaustroaren inplikazioa eskola baratzea lantzeko eta mantentzeko?

■ Zer estrategia eta egitura daude eta egin daitezke eskola baratzeak sustatzeko eta finkatzeko?

## 5.3 Sakontzeko erreferentziak.

■ La huerta pedagógica. Una Herramienta de transformación.

<https://redalimentacion.org/recurso-educativo/la-huerta-pedagogicauna-herramienta-de-transformacion/>

■ Eskolan ortu xume bat lantzeak testuingurua ematen digu planetan ditugun arazoez aritzeko.

<https://www.argia.eus/argia-astekaria/2866/eskolan-ortu-xume-bat-lantzeak-testuingurua-ematen-digu-planetanditugun-arazo-ez-aritzeko>

■ Dakiguna jaten dugu! Ortua, jantokia eta gela ikastetxean bertan eta inguruarekin integratzeko proposamena.

<https://redalimentacion.org/recurso-educativo/dakiguna-jaten-dugu-ortua-jantokia-eta-gelaikastetxean-bertan-eta-ingurua-rekin-integratzeko-proposamena-lehen-hezkuntzako-5-eta-6/>

■ El huerto escolar nos enseña a comer.

[https://cerai.org/wordpress/wp-content/uploads/2019/03/CERAI\\_Guia\\_Huerto\\_y\\_Alimentacion\\_Escolar\\_web.pdf](https://cerai.org/wordpress/wp-content/uploads/2019/03/CERAI_Guia_Huerto_y_Alimentacion_Escolar_web.pdf)

6.

Elikadura  
iraunkorraren  
kontzeptua Lehen  
Hezkuntzako  
hirugarren zikloan.



## 6.1 Arazoaren aurkezpena.

Iraunkortasun hitza bizitzaren arlo guztietan dago, baina ba al dakigu zer esan nahi duen benetan? Hiztegietan bilatzen badugu honako definizio hau aurkituko dugu: jarduketa bat denboran mantentzea eta bere helburua lortzea ahalbidetzen duten baldintzen eta baliabideen multzoa<sup>1</sup>. Ingurumen iraunkortasunaren arloan aplikatzen badugu, terminoa ingurumen, gizarte eta ekonomia egituren harreman zabalari dagokio. Horiek elkarri lotuta daude, eta planetako bizitza –ezagutzen dugun bezala– ahalbidetzen duten baldintzak mantentzeko helburua izan beharko lukete.

Beraz, elikadura osasungarriaz ari garenean elikadura-sistema erresiliente bati buruz ari gara, epe luzean elikagai osasungarriak hornitzeko gai dena. Hori posible izateko, kontuan hartu behar dugu izaki eko-dependenteak garela eta gure elikadura ekosistemei eta luraren emankortasunari lotuta dagoela erabat.

Beraz, ikus dezakegu iraunkortasunaren kontzeptua konplexua dela, eta curriculumeko beste hainbat edukirekin lotuta dagoela. Horrexegatik, Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan kontzeptu horren konplexutasuna zenbateraino lantzen den galdetzen diogu gure buruari.



**1** TERMCATetik hartutako definizioa, euskaratuta:

<https://www.termcat.cat/ca/cercaterm/fitxa/ODMIMzY3>

## 6.2 Ikerketa galderak.

■ Ikasleak elikadura iraunkorraren kontzeptua ulertzeko gai al dira?

■ Zer erreferentzia agertzen dira testuliburuetan kontzeptu horren inguruan? Erreferentzia horiek kontzeptuaren ikuspegi konplexua garatzen laguntzen diete ikasleei? Beren oraingo bizitzan eta etorkizunean iraunkortasunaren alde jokatzeko tresnak ematen dizkiete?

■ Nola landu dezakegu elikadura osasungarria ikasleentzat esanguratsua den ikaskuntzako ikuspegi batetik?

## 6.3 Sakontzeko erreferentziak.

■ Educar con enfoque ecosocial, análisis y orientaciones en el marco de la LOMLOE. FUHEM, Madrid.

<https://www.garuacoop.es/educar-con-enfoque-ecosocial-analisis-y-orientaciones-en-el-marco-de-la-lomloe/>

■ 99 preguntas y 99 experiencias para aprender a vivir en un mundo justo y sostenible. Ecológistas en Acción, MRP. Madrid.

<https://www.ecologistasenaccion.org/20300/99-preguntas-99-experiencias-aprender-vivir-mundo-justo-sostenible/>

■ Elikadura-sistemak: gure osasunean eta planetan dituzten ondorioak.

[https://publicaciones.hegoa.ehu.eus/uploads/pdfs/416/Elikadurasistemak\\_EUS.pdf?1560768026](https://publicaciones.hegoa.ehu.eus/uploads/pdfs/416/Elikadurasistemak_EUS.pdf?1560768026)

7.

**Eskolako elikadura-  
eremuetan elikagaiak  
alferrik galtzea.**



## 7.1 Arazoaren aurkezpena.

Munduan ekoizten diren elikagaien heren bat alferrik galtzen da. Espainiako estatuan 7,7 milioi elikagai botatzen ditugu urtean. Horietatik, % 42 etxeetan botatzen dira, % 39 ekoizpen-fasean, % 14 ostalaritzan eta % 5 banaketan<sup>2</sup>.


Eskolaren barruan elikadura-eremu garrantzitsuak daude, hala nola eskola jantokia eta gosaltzeko unea. Eremu horietan, hondakin ugari sortzen dira eta elikagai asko galtzen dira. Arazo hura ikaskuntza egoera interesgarria izan daiteke ikasleentzat.

Gainera, hezkuntza komunitate osoa inplikatzeko aukera dago, sukaldeko langileetatik hasi eta familietaraino, xahutzea eta hondakinak murrizteko eta elikadura-eremu iraunkorrakoak sustatzeko.


## 7.2 Ikerketa galderak.

 Zergatik galtzen dira elikagaiak gosaltzeko unean?

 Ikasleek badakite zenbat elikagai galtzen diren?

 Zer hezkuntza-estrategia gara ditzakegu elikagaien xahutzea murrizteko?


## 7.3 Sakontzeko erreferentziak.

 Ideas para abordar la problemática del desperdicio alimentario en las aulas de educación infantil y primaria.


<https://www.familiaysalud.es/sites/default/files/bonprofit-recursos-didacticos-desperdicio-dic2021.pdf>

 Etxean hondakinak saihestea.

<https://consumopolis.consumo.gob.es/eu/fichas-pedagogicas/etxean-hondakinak-saihestea#>

 Guía de buenas prácticas frente al desperdicio alimentario.

<https://ecodes.org/documentos-ecodes/category/141-desperdicio-alimentario?download=330:guia-de-buenas-practicas-frente-al-desperdicio-alimentario>

 Blog Xarxa Escoles contra el malbaratament amb recursos didàctics interessants.

<https://escolescontraelmalbaratament.blogspot.com/>



2

<https://www.miteco.gob.es/es/ceneam/recursos/materiales/guia-desperdicio-alimentario.aspx>

8.

**Ekologiaren  
aurkako curriculum  
ezkutua.**



## 8.1 Arazoaren aurkezpena.

Testuliburuak ez dira eskola-eremuko tresna bakarra, baina gaur egungo hezkuntza-praktika testuliburuetan oinarritzen da batez ere<sup>3</sup>. Kontuan izan behar dugu, bada, liburu horietan erakusten den curriculum-ikuspegia ez dela neutrala, eta hori gogoratzea funtsezkoa da hezkuntza kritikoa eta eraldatzailea garatu nahi badugu.

Testuliburuak eskolan ikasten den horren zati bat besterik ez dira, baina belaunaldi desberdinek bizitzari aurre egiteko erabiltzen dituzten eske-  
ma mentalen erakusgarri dira. Testuliburuak in-  
formazio-iturrietako bat besterik ez badira ere,  
gizarteak ezagutza "seriotzat eta objektibotzat"  
hartzen duen hori erakusten dute. Gure kulturak  
mundua ulertzeko eta pentsatzeko erabiltzen  
duen lupa erakusten dute. Pertsona askorentzat  
testuliburuak diotena egia eztaba daezina da,  
eguzkia ekialdetik irteten dela bezalaxe. Testuli-  
buruak iraunkortasunaren ikuspegitik berrikus-  
tean, munduari begiratzeko moduari eta mundua  
ulertzeko modua aldatu beharrari buruzko alerta  
pizten da<sup>4</sup>.

## 8.2 Ikerketa galderak.

■ Testuliburuetan ikuspegi ekologistarik al dago?

■ Horietan zehar informazio kontraesankorrak ematen al dira? Adibidez, ingurumen iraunkortasunari buruzko atalean CO2 isurketak murriztearen garrantzia lantzen da baina, Industria Iraultza-  
ren atalean, hura gizarte eta ekonomia aurrerapen gisa aurkezten da, garapenari dagokionez, eta ez dira ingurumen ondorioak kontuan hartzen.

■ Zer garapen kontzeptu dago testuliburuaren oinarrian? Kontuan hartzen ditu emozio, gizarte eta ingurumen garapeneko alderdiak, edo BPGari lotutako datuak soilik lantzen ditu?

## 8.3 Sakontzeko erreferentziak.

■ El currículum oculto antiecológico de los libros de texto.

[https://www.ecologistasenaccion.org/wp-content/uploads/adjuntos-spip/pdf/curriculum\\_oculto\\_antiecológico\\_libros\\_texto.pdf](https://www.ecologistasenaccion.org/wp-content/uploads/adjuntos-spip/pdf/curriculum_oculto_antiecológico_libros_texto.pdf)

■ Torres Santomé, Jurjo (1991). El currículum oculto. Madrid, Morata.

3

<https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=5969918>

4

[https://www.ecologistasenaccion.org/wp-content/uploads/adjuntos-spip/pdf/curriculum\\_oculto\\_antiecológico\\_libros\\_texto.pdf](https://www.ecologistasenaccion.org/wp-content/uploads/adjuntos-spip/pdf/curriculum_oculto_antiecológico_libros_texto.pdf)

9.

**Haur Hezkuntzako  
elkadura hezkuntza  
birpentsatzea.**



## 9.1 Arazoaren aurkezpena.

Eguneroko jarduerak dira Haur Hezkuntzako hezkuntza giroaren ardatz nagusia. Eta jarduera horiek jolasaren eta esperimentazioaren bitartez partekatzen dute hezkuntza balioa. Hala, haurren gaitasunak batera garatzea sustatzen dute. Zentzu horretan, elikadura funtsezko alderdia da, inguruarekin lehen harreman boluntarioak ezartzeko aukera ematen baitu eta komunikazio afektiboaren eta sozialaren oinarriak egituratzen baititu.

Beste alde batetik, haurren elikadurak funtsezko garrantzia du etorkizuneko elikadura ohiturak eta zaletasunak garatzeko; izan ere, horiek nekez aldatuko dira gero. Beraz, etorkizuneko osasunean eta nutrizioan ere eragiten du.

Haurrak biztanlegoaren zati zaurgarri bat direla ulertu behar dugu. Haien elikadura pertsona helduen erabakien menpe dago erabat, eta erabaki horietan osasun arloko profesionalek, hedabide handiek eta elikagaien industriak eragiten dute. Ildo horretan, hainbat ikerketaren arabera, haurren obesitatearen gorakada bizitzako lehen etapatan nutriente jakin batzuk (koipeak, azukreak...) modu desegokian kontsumitzearekin lotuta dago.

Elikadura industriala publiko guztien eskura dauden eremuetan iragartzen da: telebistan, eskoletan, ospitaletan, haur-eskoletan, parkeetan, kalean... Gainera, iragartzen diren elikagaiak, oro har, ez dira nutritiboak, eta horien kontsumoak mendekotasuna ere eragin dezake.

Hori guztia kontuan hartuta, eta adin horretako elikadura hezkuntzari eman ohi zaion garrantzi eskasa ikusita, gure buruari galdetu behar diogu zeintzuk izan daitezkeen elikadura Haur Hezkuntzan sartzeko estrategiarik egokienak, eta zeintzuk dira hori egiteko baliabiderik egokienak.

## 9.2 Ikerketa galderak.

■ Zer baliabide dira egokienak elikadura-hezkuntza Haur Hezkuntzan lantzeko? Arlo artistikoak lagungarriak izan daitezke?

■ Nola sar/molda ditzakegu elikadura-hezkuntza kritiko eta eraldatzaile baten edukiak Haur Hezkuntzako zikloan?

■ Nola lagundu dezakete familiek elikadura-ohitura osasungarriak ikasteko prozesua, justizia eta iraunkortasun ikuspegi batetik?

■ Irakasleak eduki horiek txertatzeko prest eta sentsibilizatuta al daude?

## 9.3 Sakontzeko erreferentziak.

■ Mi primer veneno. La gran estafa de la alimentación infantil.

<https://justiciaalimentaria.org/actualidad/justicia-alimentaria-presenta-mi-primer-veneno-un-informe-sobre-las-falacias-de-la-alimentacion-infantil/>

■ Defiéndeme. Por una ley que proteja a la infancia de la publicidad, ¡YA!

<https://justiciaalimentaria.org/campana/defiendeme/>

10.

**Sukaldari ikusezinak:  
emakumeak eta  
elikadura Historian  
zehar.**



## 10.1 Arazoaren aurkezpena.

LOMLOE Hezkuntza Lege berriak lantzen duen ardatz nagusietako bat genero ikuspegiaren zeharkakotzea da. Elikaduraren kasuan hainbat alderdi landu ditzakegu: landa eremuko emakumeak, elikadura-nahasmenduak, lurraldearen defendatzaileak, elikadura hezkuntza...

Ekonomia feministen ekarpenek lan produktiboaz gain lan erreproduktiboa ere aintzat hartzearen garrantzia nabarmendu dute. Lan erreproduktiboaz ari garenean honako hauei buruz ari gara: zaintza, etxeko guneak eta ondasunak mantentzea, gizarte harremanak, eta senideei sostengu psikologikoa ematea (Picchio, 2001). Lan hori emakumeek egin izan dute historikoki, eta erabat ezikusia izan da. Beraz, ez da bizitza sostengatzeko ezinbesteko lantzat hartu izan. Elikadura, jakina, lan horien barruan kokatzen da; izan ere, bizitzarako garrantzitsuenetako bat da, eta pertsonak inguruarekin duten harremanean eragiten du.

Elikadurak sozialki garrantzitsuak diren ezagutza asko ematen ditu, eta horiek emakumeen artean transmititu izan dira historikoki: plangintza, erosketa, prestaketa, nutrizioa, eta abar. Gure ustez hezkuntza formalean alderdi horiek landu behar dira, eta hortaz galdera honi erantzun nahi diogu: nola landu dezakegu gai hori Lehen Hezkuntzako curriculumaren esparruan?

## 10.2 Ikerketa galderak.

■ Ikasleek bizitza sostengatzeko funtsezko lan gisa ikusten dute lan erreproduktiboa?

■ Ba al dago emakumeek Historian zehar elikaduran izandako eginkizuna lantzen duen esperientziarik?

■ Posible al da lan hori lantzen duen diziplinarteko proiektu bat garatzea?

## 10.3 Sakontzeko erreferentziak.

■ Lurre(z)ko ahizpen feminismoaren alde: landa-eremuko emakumeen aldeko 2020ko Manifestua.


<https://mallata.com/lurrezko-ahizpenfeminismoaren-alde-landa-eremuko-emakumeen-aldeko-2020komanifestua/>

■ Mundua elikatzen duten emakume nekazarien ahotsa.

<https://www.diariovasco.com/san-sebastian/mundua-elikatzen-duten-20180528115842-nt.html>

■ Elikadura burugabetza eta feminismoak.

<https://bizilur.eus/wp-content/uploads/2016/01/ELIKADURA-BURUJABETZA-ETA-FEMINISMOAK.pdf>



Redalimentación honako hauen programa soziohezitzailea da:

Laguntzen du:

